

1. Irudiak begiratu eta erantzun.



Zein da herria?

Eta zein hiria?

Arrazoitu zure erantzunak:

2. Lotu.

Jende gutxi bizi da

Eraikinak handiak dira

Kaleak zabalak eta luzeak dira

Etxeak txikiak dira

HERRIA

HIRIA

3. Jarri HE herriari badagokio esaldia eta HI hiriari badagokio.

- a. Trafiko eta garraiobide ugari dago. ____
- b. Eraikin gehienak berdinak eta baxuak dira. ____
- c. Zerbitzu asko daude. ____
- d. Kaleak estuak eta laburrak dira. ____
- e. Jende asko bizi da. ____
- f. Tamaina txikia dauka. ____
- g. Auzoak ditu. ____

4. Zein herri mota da bakoitza?



5. Hiriek, normalean hiru auzo dituzte: ALDE ZAHARRA, ZABALGUNEA eta KANPOALDEA. Jarri definizio bakoitzaren ondoan zein auzo den.

- a. Gunerik modernoena da. Zabalgunearen inguruko auzoek osatzen dute. Etxebizitza-eraikinak, etorbideak, parkeak eta merkataritzaguneak egoten dira, bai eta fabrikak, biltegiak, aisiarako guneak eta abar ere.

- b. Hiriko zatirik zaharrena da, erdigunea. Hori da hiriaren sorrera. Kaleak estuak izaten dira. Zati horretan egoten dira leku garrantzitsuenak.

- c. Erdigunearen inguruko auzoak dira. Zati horretan etxebizitza- eta bulego-eraikinak eta etorbideak egoten dira. Eraikin horietako askok 100 urte baino gehiago dituzte.

Idatzi lauki bakoitzean zein auzo den.

